

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5218

2169/2015 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Susana Garate Pérez andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertu da Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 2015eko urriaren 1eko 1604/2015 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2015eko urriaren 13ko EHAAn (194. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Susana Garate Pérez andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Susana Garate Pérez andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Administrari laguntzaile lanpostu funtzionalaren 7003 plazaren jabea dena, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu behar da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Susana Garate Pérez andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.— Izendapen honek 2015eko abenduaren 1etik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.— Susana Garate Pérez andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.